

2018/00001172 DEKRETUA

Gaurko datarekin alkateak honako Dekretu hau eman du:

DEKRETUA: Hernanin, 2018/07/18,

2018ko uztailaren 6ean Hernaniko Udala eta "Berriak" Hernaniko merkatarien eta ostalarien elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena sinatu zen, diru-laguntza hitzarmena.

Uztailaren 11n Berriak elkarteak diru-laguntzarako eskaera aurkeztu zion Udalari. Eta eskaerarekin batera 2018ko ekintzen memoria, jardueraren aurrekontua eta zerga betebeharrak egunean dituenaren ziurtagiriak aurkeztu zituen (Ogasuna eta Gizarte Segurantzaz).

Uztailaren 16ean Turismo eta Merkataritza saileko teknikariak aipatutako diru-laguntzaren interes orokorra justifikatzen duen txostena egin zuen.

Uztailaren 13an emandako Dekretu bidez, indarririk gabe utzi dira 2015eko urriaren 2an emandako dekretu bitartez Tokiko Gobernu Batzarraren esku utzitako eskumenak, 2018ko uztailaren 16tik abuztuaren 31 arte. Denbora tarte horretan dekretu horretan aipatzen diren eskumenak nireganatu ditut.

Hori guztia kontuan izanik,

Eman zaizkidan ahalmenak erabiliz

ERABAKI DUT:

- "Hernaniko Udala eta Berriak elkartearen arteko diru-laguntza hitzarmena" ontzat ematea.
- Berriak elkartearen eskaera onartzea.
- Berriak elkarteari 24.000 euro ordaintzea. Udalaren aurrekontu diru partida honen bidez ordainduko da: 1 02.481.01.241.00 2018 (4552)-BERRIAK ELKARTEA-HITZARMENA. Aurrekontu Baimendu zenbakia: AD 888-2018
- Udalak 24.000 € horiek bi zatitan ordainduko ditu:
 - 1- %60 hitzarmena ontzat ematerakoan (dekretu honen bidez ontzat ematen da).
 - 2- %40 diru-laguntzaren likidazio dokumentazioa éntregatu eta onartzen denean.
- Ordainketa Berriak elkartearen kontu korrontera egingo da: E589 3008 0170 15 1019863321

Luis Intxauspe Arozamena alkatea k agindu eta sinatu du, eta nik, Miren Arantza Arrazola Iturbe udal idazkariordeanaizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: alkatea . Sinatua: udal idazkariordea

udal idazkariordea
2018/07/18,

